

ORDIZIAKO NAZIOARTEKO SARIA. Pankratovek Ulibarriri irabazi zion, tximeleta 100 metroetan gutxigatik gailenduta

Jivanevskaiak, marka berria

Bizkarkako 100 metroetan 1.008 puntu lortu zituen espainiarrak, eta garaipena eskuratu zuen, Caslaruren aurretik



PABLO S. QUIZA
Denis Pankratov errusiarra eta Nina Jivanevskaja espainiarra, atzo Ordizian txapela jaso ondoren.

Jon Ordoñez | **DONOSTIA**

Denis Pankratovek eta Nina Jivanevskaiak irabazi zuten atzo Ordiziako Nazioarteko Saria, puntu gehien lortuta. Jivanevskaiak 1.008 puntu lortu zituen bizkarkako 100 metroetako proban, eta Beatrice Caslaruk ezin izan zuen 200 metro estiloetan espainiarraren aurretik geratzeko behar zituen puntuak lortu. Errumaniarrak 2 minutu eta 11 segundotik behera egin behar zuen puntuaketan Jivanevskaiaren aurretik geratzeko, baina 2.14.37ko denborarekin geratu zen.

Jivanevskaiak Ordiziako Nazioarteko Sariko puntu marka haustea lortu zuen atzo. Aurrekoa Martin Lopez Zubero zuen, mila puntu, horiek ere bizkarkako proban lortutakoak, 1994. urtean. Errusiar jatorriko espainiarrak proba oso nekatuta amaitu zuela esan zuen, baina gustura azaldu zen: «Pozik naiz, oso ondo tratatu nautelako eta omenaldia egin didatelako. Hain herri txiki bateko txapelketa batek hain maila ona izateak harritu egin nau». Jivanevskaiak denbora hobia ere egin zezakeen, baina igerilekuan ez zuen aurkaririk izan, bere proban bi metroko aldeaz nagusitu baitzen.

Caslaru bigarren geratu zen,

200 metro estiloetako proban lortutako 940 puntuekin. Bular-kako 100 metroetan ere garaipena lortu zuen, baina errumaniarra ez zen 822 puntuetatik pasatu, 1.11.55eko denborarekin. Hirugarren Ane Saseta euskal igerilaria izan zen. Sasetak bizkarkako 100 metroetan lortu zituen hirugarren postua eman zioten 817 puntuak, probako sailkapenean Jivanevskaiaren

SAILKAPENA	
GIZONEZKOAK	Pt.
1. Denis Pankratov	966
2. Jorge Ulibarri	953
3. Jorge Sanchez	898
EMAKUMEZKOAK	
1. Nina Jivanevskaja	1.008
2. Beatrice Caslaru	940
3. Ane Saseta	817

atzean geratuta. Podiumetik oso gertu Junkal Irigoien geratu zen, 790 puntuekin.

Gizonezkoen probetan Pankratovek irabazi zuen Ulibarri-rekin zuen lehia; bizkarkako 100 metroetako proban 52.88ko denbora egin zuen. Errusiarrak ordura arte Ordizian proba horretan inoiz izandako marka onena hautsi zuen. Atzo arte Muhammad-ek zuen

denbora onena: 1998an lortutako 53.60koa.

Ulibarri sasoikoago iritsi zen atzo Ordiziara, baina errusiarraren esperientzia nagusitu zitzaion. Tximeleta erako 100 metroetan biek hartu zuten parte, eta euren marka onena proba horretan lortu zuten, Pankratovek 966 eta Ulibarrik 953. Aldea oso txikia izan zen, errusiarrak 22 ehuneko alde soilik atera baitzion espainiarrari. Ulibarrik 100 metro libre-etan ere parte hartu zuen, baina 945 puntu baino ez zituen lortu, eta ezin izan zion Pankratovi aurrea hartu. Hirugarren Jorge Sanchez iazko garailea geratu zen, 898 puntuekin.

Richard Oribe eta Ainhoa Eizmendi 50 metroetan

Richard Oribe eta Ainhoa Eizmendi izan ziren nagusi atzo 50 metro libre-etan. Oribek 142 puntu lortu zituen gizonezkoetan, eta haren atzean Ignacio Azpiazu geratu zen, 135 puntuekin. Hirugarren Iñaki Irastorza izan zen.

Emakumezkoetan, lehenengo-aren eta bigarrenaren arteko alde askoz ere handiagoa izan zen, eta Eizmendik, 253 puntu lortuta, 162 puntuko alde atera zion Ana Garcia bigarrenari. Hirugarren, Oihane Sanza izan zen.

ORDIZIAKO SARI NAGUSIKO EMAITZAK				
PROBA	GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK	
100 m. tximeleta eran	1. Denis Pankratov	52.88	1. Beatrice Caslaru	1.02.86
	2. Jorge Ulibarri	53.12	2. Angela San Juan	1.02.88
	3. Fernando Alaez	55.87	3. Junkal Irigoien	1.05.75
100 m. bizkarka	1. Jorge Sanchez	55.82	1. Nina Jivanevskaja	59.99
	2. Carlos Meana	58.82	2. Ane Saseta	1.04.35
	3. Daniel Muñoz	1.01.26	3. Irene Montero	1.06.31
100 m. bularka	1. Ivan Agirre	1.03.21	1. Beatrice Caslaru	1.11.55
	2. Federico Zamora	1.04.35	2. Itziar Armentia	1.13.38
	3. Pedro Simon	1.04.89	3. Enara Herran	1.15.77
100 m. libreak	1. Jorge Ulibarri	49.13	1. Nina Jivanevskaja	57.15
	2. Pablo Artime	52.52	2. Junkal Irigoien	58.42
	3. Ares Lopez	52.61	3. Angela San Juan	59.28
200 m. estiloak	1. Jorge Sanchez	2.08.37	1. Beatrice Caslaru	2.14.37
	2. Federico Zamora	2.09.49	2. Maria Castellanos	2.25.16
	3. Hugo Metz	2.10.56	3. Patricia Zapata	2.28.38
50 m. libreak	1. Richard Oribe	41.72	1. Ainhoa Eizmendi	38.71
	2. Ignacio Azpiazu	42.48	2. Ana Garcia	54.38
	3. Iñaki Irastorza	46.54	3. Oihane Sanza	58.82